

pil-pilean



**HERRIKO DJAK ETA EKOIZLEAK
elektronikaren erritmora**

Bai



UDALBILTZARI EUSKAL HERRIARI !

Uztailak 3: Babesa ematen duen sare sozialaren aurkezpena eta ondoren bideo emanaldia **zinean**. Amaieran talde argazkia aterako da.

Uztailak 7: Mozioa aurkeztuko da osoko bilkuran, 19:00etan.

Uztailak 15: 19:30ean elkarretaratzea. "Bai Udalbiltzari, bai Euskal Herriari".

Elizpe
Hertz klinika

Gure zerbitzuak:
- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

DICHAINEN BERRIKUSKETAK
FINANTZAKETA ZURE NEKERIKI
KONPRIMISOREK GABEKO ALIBIKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hertz programa) Elizburu, 3 beheak, Soraluze • Tel. 943 75 25 67

**Soraluzeko
Kooperatiba
Elkartea**

100 URTEA
1910 - 2010

943 75 13 45

**ARMENDIA
JATETXEA**

Ezoz Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA

Harategia

Enkarguz
eskatutako janaria ere
prestatzen dugu

HARATEGIA

Kalebarren 3. Soraluze Tel. 943 75 12 49

TXURITXU

Zuekin
gozatzen

943 75 24 43

Santa Ana Kalea 22 beheak

**Lakuesta
Optika**

Ikusmen arazozen frogak
eta argibideak
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C. beheak
20590 Soraluze
T. 943 75 30 59

**ARITZ ARIZAGA****EGOITZ UNAMUNO**

SAN JUANAK LAGATA

Iepa Egoitz, San Juan suak piztu eta itzali ostian, urte sasoi barrixa estreñatzia tokatzen jaku, Egoitz. Behingoz negua, neguko egualdi eskasa eta egun motzak alde batera lagatzeko moduan gaittuk. Oin udan, berua, eguzkia eta egun luziak etorriko dittuk, eztok uste? Behintzat azkeneko aste hau, aurrekoa baino hobia izan dok.

Umiak be oporrak hartu dittue, eta herrixetako jaixak be hastiar jabizik. Aurreko asteburutik hasitta, Eibarko jaixak martxan jaozik; eta pixkanaka, santu eta santak heltzen hasiko dittuk. Plaentxiakuak be hillabete barru izango dittuk. Eta honek billurto egitten naok. Nun ospatuko jittuau ba jaixok? Herri erdi obretan jaok, Plaza Zaharra, udaletxe ondoko aldapia... Espero, jaixak heldu orduko, honek bukatuta egotia edo behintzat, nunbaiten ibili ahal izatia.

Udan gozatu in bihar jok pertsoniak, Egoitz. Egualdixaz, oporrez, lasaittasunaz, jaixez... edozerrekin baina gozatu. Hondartzan edo mendixan, bertan edo kanpuan, uretan edo eguzkittan... gozatu. Hik ze asmo daukاک udarako? Ixa uztaillian egonda, hau dana pentsatzen jun bihar izaten dok, udia ondo pasatu eta aprobetxatzeko.

Besterik gabe, uda ona pasatu deizula, eta zuk irakurle be bai.

San Juanak lagata? Nik San Juanekin oroitzen edarrak jakaraz Aritz. Batez be Estaziñuan su erraldoi haura egitten genduanekua (Txurrukenen be egitten juen baina txikitxugua).

**Pixkanaka,
santu eta santak
heltzen hasiko
dittuk**

Aritz Arizaga

**Gorde deiguzen
bizitzeko
espazio libriak,
elkarrekin
juntatzia, umore
ona eta sanidadia**

Egoitz Unamuno

Estaziñuan hilabete aurretik ibiltzen ginduaz neska-mutiko kuadrilia trastiak batzen, han eta hemen, jesukriston "ogera"-tzarra osatu arte. Ze emoiño haura pizteko orduan. Tornillerixetako moltxuekin egindako antortxa bana eskuetan hartuta, hamarretako kanpaiak joteko zain. Hori bai, piztu aurretik batutako dana begiratzen genduan. Kartak, apuntiak, fakturak, "Interview"ak... Eta gero Asunen txokolotatia jan eta saltoka. Autentikua zuan, majikua.

Lehen posible zuan holakuak egittia, Trenbidian. Han jeuan espaziua nahikua, libria, nahi zebanak nahi zebana egitteko. Gu urte guztian han ibiltzen ginduaz trankil asko, kotxien bildurrik barik. Haura bai zala askatasuna. Oin emoten jok dana daguala hartuta, dana batenbatena dala, dana dala zozertarako, dana dala peligrasua, dana itxi bihar dala... badaezpada...

Badaezpada gorde deiguzen bizitzeko espazio libriak, elkarrekin juntatzia, umore ona eta sanidadia eta erre deiguzen sartzen doskuezen txarrikerixa danak. Biba San Juan Berde!

Goguan hartzeko

“Solstizio berba latinetik dator, sol sistere-tik, geldi dagoen eguzkia esan nahi du”



GUTUNAK

Deba ibairako "Life" proiektua bertan behera

Orain dela egun gutxi jakin dugu Europar Batasunaren aurrean aurkezturiko Deba ibaia zaharberritzeko "Life" proiektua bertan behera gelditu dela. Hau da, Soroluzeko Udalak, Debegeesak eta Uraren Euskal Agentziak amankomunean aurkezturiko proiektuak dituela bete dirulaguntza eskaerak galdatzen zituen baldintzak. Zoritxarrez dirulaguntza eskaera bertan behera gelditu da. 2 milioi eurotako proiektuaz hitz egiten ari gara. Finantziarioa Europar Batasunaren, Ur Agentziaren eta Soroluzeko Udalaren artean burutu beharko litzateke 4 urteko epean. Proiektu honen helburua Soroluzetik igaro-

tzen den Deba ibaia eraberritzea izango litzateke ingurugiro ikuspegitik. Benetan tristuraz hartu dugu Europar Batasunak emaniko erabakia proiektu honi dagokionean. Jakinekioa da Deba ibaia Gipuzkoako kutsatuena dela eta horrelako proiektua onartzeak ekarriko lituzkeen abantailak nabariak izango liratekeela. Dena den aurtengo urtean ez da posible izango. Espero dugu etorkizunari begira proiektua hobeto zehaztea eta hurrengo dirulaguntza programan baldintzak betetzea eta proiektua onartzea Soroluzetik eta baita Deba ibaiak ere merezi baitu horrenbeste.

Soroluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

Herriko lanak, astunak baino astunagoak

Herriko asfaltatze lanak denak batera egitea hastuna egiten da. Pasa den asteetako euriteek porlana ziprztindu eta herritar gehienak porlanez beteta ibili gara handik eta hemendik, baldosa asko eta asko solte daudelako eta honek zapaltzea eta ondorioz zikintzea saihestu ezina bihurtu delako. Askok izan gara kalean elkartu

eta honi buruz mintzatu garenak, batzuk etxera bidean (arropa garbia janztera) eta beste batzuk hau egiteko aukerarik ez eta lanera oinetako eta praka zikin-zikinekin gindoazela. Kontzejuean garbitegi bat jartzea proposatzen dut, seguru batek baino gehiagok erabiliko dugula! Edo bestela, konpondu baldosak, mesedez!

Pedri Lete

Gure indarra, elkartasuna!

Azken garaietan "krisiaren" aitzakiaz langileei dagozkigun eskubideak mozten ari dira, inoiz egin diren proposamen eta erabaki atzerakoenak mahai gainean jarritz. XXI. mendeko esklabo mota berri bihurtzeko zorian gaude... eta honek erantzun duin bat behar duela inork gutxi ukatzen du. Eskatzen ari zaigun "bake sozialak" ez gaitu aterako zulo honetatik. Alderantziz, gutxi batzuen ondasunak bermatzea besterik ez du lortuko. Elkarlanean, elkartasuna erakutsiz gure haserrea azalarazteko unean gaude, beldurrak alde batera utziz. Azkenengo greba deialdiek erantzun bikaina izan dute orokorren, eta hau, gaur egun, txalotzekoa da, denok ezagutzen baitugu ze nolako egoerak bizi diren lantokietan greba baten inguruan: mehatxuak, xantaiak, gezurrak: "aha-

leginak ez du ezertarako balio", "irabaztekoa baino galtzekoa gehiago", "beste batzuk borrokatu, nik isil-isilik irabazteko"... .

Txalotzekoa aipatu badugu, kontrakoaren adibidea ere azaldu nahiko genuke. Elkartasun ezaren adibidea. Langileen asanbladak erabaki duenari muzin egiten diotenak dira hauek. Eta honez gain, patrioiaren aurrean lankideak akusatzerara iristen direnak, mehatxuak jaso dituztela esanez. (Alejandro Urrestarazu lantokian gertatua metalgintzako greba egunetan). Lotsagarria benetan. Ez dira hauek makurtzeko garaiak, ezta ahazteko aurkariak nortzuk diren eta non kokatuta dauden.

Ekainaren 29an izango dugu beste astindu bat emateko unea: "Gure eskubideak defenditzeko, greba orokorra".

Soroluzeko LAB

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soroluz, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saibilburuordetza



SOROLUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Joseba Exposito
Istorio ezaguna

Urte eta erdi pasatu da Txinara iritsi nintzenetik eta ia erdi txinatartuta sentitzen naiz (hala diote nire lagunak).

Txinaren tirabiretan sartuta, orain dela gutxi eman du gobernuak argitara "liburu zuria", internetaren erabilera gidatzen duena. Munduko internauta gehien dagoen herrialdean (eta herrialdearen %30ak besterik ez du erabilera oraindik), informazioak "Txinako beste harresia" deritzona pasatu behar du. Ahaztu guretzako egunerokoak diren, Facebook, Youtube, blog, bideoak... eta batzuetan baita hotmaila ere. Tibetean gainean aritzea ere bekatu. Sexu orrialdeak saiatu ere ez! Hemen Beijing-en dagoen anaia handiak dena dauka kontrolpean, okerrrik gerta ez dadin eta tamalez, Txinako albisteez gure familiak gu baino lehenago enteratzen dira. Tranpatxoak eginaz sartzen gara debekaturiko orrialdeetan, harrapatzen gaituzten arte! Eskerrak oraindik plaentzia.com orrialdera iritsi ez diren eta Soraluzeke berri izateko aukera dudan Pil-pileani esker. Abiada bizian hazten ari den herrialdeak informazio grina du, telebista kateen, interneten, egunkarien debeku... Modu batean, hain ezaguna dudan beste herrialde bat ekartzen dit honnek gogora ...

Uda gainean dugula, jaietan ikusiko dugu elkar Soraluzean!
Bien bitartean, ondo izan!!

Leire Elizburu eta Aritz Arizaga, DYA elkarteko boluntarioak

Noiztik diharduzue DYAn bolondres moduan?

Oin dala 3 urte hasi ginan. 30 orduko Lehen Sorospeneke ikas-tarua egiten izan ginan Eibarren. Bukatu ostian, DYAn bolondres moduan jardungo genduan galdetu zoskuen. Sorospenia laguntzaile izateko balixo genduan edo ez probatu eta aurrera!

Nahikua lan izango dozue...

DYAk erreskatiak (mendixan, itsasuan eta errepidian) eta ekitaldi kulturalen zaintzia egiten ditte batez be. Lehen Sorospenia gare gu. Normalian ospakizunak eta jaixak daren lekuan jarduten dogu, ezer gertatzen bada lehenengo uneko laguntzia emoteko. Erreanimazinuak egin, bendajiak ipini, taupadak neurtu, hazurrak inmobilizatu, zaurixak garbittu... beti beterano baten zaintzapean.

Zenbat orduko jarduna daukazue astian?

Lan honek harrapatu egin gaitu. San Juanetako asteburuan, esate baterako, 28 ordu lan egingo dogu.

Harritzeko moduko gertakizunik?

Jaixetan eta gazte egunetan jende gaztia mozkor-mozkor eginda ikustia harrigarria da! Zezenak harrapatu zeban gazte bat ikustia be ikusgarria izan zan. Baina gogorrena gure lehenengo zerbitzuan bizi izan genduan, Eibarko Rallyxan. Bi autok elkar jo zeben eta 3. autua abixada bizixan zetorren. Jendia pistan begira eta ixa sekulako sarraskixa gertatu zan. Zorionez pilotu onak dira eta ez zan ezer larririk gertatu baina



istripua izan zeban pilotuan ahua ikusitta "ai ama!!" esan genduan danok! Eskerrak bere andria dentistitia zanari...

Eta egin dozen lanik politena?

Jendia oso esker onekua da eta beti hitz polittak entzun izan ditugu. Bihar dabenari laguntzia da lan honen lelo nagusixa.

Dohain bereziren bat eskatzen da?

DYAn egunero zeoze berrixa ikusi eta ikasteko gogua eukitzia da garrantzitsuena. Pazientzia be dohain bat da baina batez be, gogotsu egotia da esker-tzen dana.

Animatu herritarrak DYAn parte hartzera...

Lan politta eta esker onekua da eta jendiakin tratuan egotiak pertsona moduan hazten laguntzen dotsu. Informazino gehixago, 943 46 46 22 telefonuan.

"San Juanetako asteburuan 28 orduz egingo dogu lan"

HNOS. BENITO ANAIAK



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47

Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Balategieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Elizako organoak mendea bete du

Mende oso bat, 100 urte bete dituzte elizako organoak. 1590. urtean sinatu zen organoa elizan jartzeko lehen kontratua. 1720an entzun ziren lehen melodia xumeak, Ygnacio de Iraolagoitiaren eskutik. 1872. urtean Hermenegildo de Amézuak bigarren organo bat sartu zuen elizan, lehen organoa ordezkatu zuena. Gaur egun dagoena ordea 1910. urtekoa, Bartzelonan egina eta handik ekarritakoa. Bere

sasoian 16.000 pezeta balio izan zituen. Egitura simplea du; eskuzko bi teklatu eta hankazko bat dauka. Mekanikoa izatetik elektrikoa izatera pasatu da.

Organoa belaunaldi askoren lekuko

1910ean organo hau jo zuen lehen herritarra izan zen Modesto Amuchastegui. Miguel Sesmak hartu zion lekukoa eta ondoren, Roke Osoro apaizak. Hipolito Usabiaga, Telesforo Cuende, Juan Zugasti, Jose Mari Juaristi eta Asensio Gurruchaga izan ziren hurrenez hurren XX. mendean organoa jotzeaz arduratu ziren hurrengo abadeak. Don Asensio-ri emakume batek hartu zion lekukoa, Ines Landeras mutrikuarra. Duela zortzi urte ekin zion Pablok organoa jotzeari eta gaur egun ere bera da ospakizun eta elizkizun guztietan organojole. Mendeurrenako ospakizunik politena, oraindik orain organoaren melodia entzuten jarraitzea dela aipatu du Pablok.



Zortzi organojole izan dira 100 urteotan.

Metaleko greba %80ak jarraitu du

LAB eta ELA sindikatuek, metalgintza sektorean egin den lau eguneko lanuztea arrakastatsutzat jo dute. Herrian langileen %80-85ean kokatu dute jarraipena GOL, Pascual Churruca, Talleres Urrestarazu eta Irazola enpresatan gehienbat. Berrito neurri atzerakoiekin inongo hitzarmenik ez dutela nahi agerian utzi nahi izan dute lanuzte honekin. ELA, LAB, ESK, STEE/EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek eta CC00k bere aldetik, ekainaren 29an greba orokorra egiteko deialdia luzatu dute. Langileen eta pentsiodunen laguntzak murriztearen kontra agertu nahi dute, neurri antisozialak salatu eta alternatibak badaudela erakutsi, aberastasunaren banaketa, adibidez. Mobilizazioak iragarri dituzte.

Udalbiltzari herri babesa eskaintzeko egitasmoa

Udalbiltzako kideen kontrako epaiketa uztailaren 15ean hasiko da. Epaiketa hau bidegabekoa dela adierazi eta auzipetuei babesa eskaintzeko eragile eta norbanakoen sarea sortzen dihardute herriko Ezker Abertzaleak, EAK, EAJk eta LAB sindikatuek.

Danborradako nagusien entseguak martxan

Santiago - Santa Ana jailetako danborradak hasi ditu entseguak, martitzen eta egunenetan 20:00etatik 21:00ra bitartean frontoian. Izena eman nahi duenak bertara jo dezake.

1965en kinto bazkaria

Uztailaren 3an 1965. urtean jaietakoek kinto bazkaria egingo dute Txurruka jate-txean. Izena eta ordainketa Kutzako ondorengo kontu zenbakian egin behar da, ekainaren 28a baino lehen: 2101006216 0012638094. Eguerdiko 13:00etan batuko dira Txokoan.

XIII. Motorren bilkura ondo ospatuta

Ekainaren 13an, 13 urte bete zituzten Plaentxi Motoclub Elkarteak. Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, euririk egin ez eta prestatutako ekimenak aurrera eraman ahal izan zituzten. Bazkariarekin amaitu zen herriko motorzaleen eguna, hogeitik gora lagun batu zituen.





SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak



ARRANO

tabernia

etorri eta gozatu giro euskalduna eta sanua



etxera

2010eko Santiago - Santa Ana Jaiak gertu

Herriko asfaltatze lanak udazkenara arte

Etxaburueta eta Plaza Zaharreko asfaltatze lanak udazkenara arte luzatuko direla jakinarazi du Jose Luis Arizaga alkateak. Plaza Zaharra Santiago - Santa Ana jaietan erabilgarri egongo da. Eraikuntza arloko grebak direla eta (asteen hiru egunez), Etxaburueta eta udaletxe-ko aldapako asfaltatze lanak luzatu eta udazkenarako amaituta egotea aurreikusten da. Guztira, 358.625,17 euroko inbertsioa egingo da lan hauetan.



Hondartzarako autobus zerbitzua martxan

Debako hondartzara joateko autobus zerbitzua martxan da. Lanegunetan erabili ahal izango da.

Ekainak 21-uztailak 25

7:30 - 8:30 - 12:30 - 13:30 - 14:30 eta 17:30 orduetan Eibarrera doan autobus berak Debara jarraituko du bidaia. Bueltarako Debatik 20:00etan irtengo da.

Ekainak 21-uztailak 25

12:30 eta 16:30, herritik Eibarrera eta autobus berean Debara. Itzultzeko 17:25 eta 20:25ean egongo da.

Lurjauzia eta putzuak euriteengatik

Hilaren 16ko euriteak lurjauzia eragin zuen San Andres auzoko errepide batean. Zelai bateko mugako lurra jauzi eta Boskoittirako bidea itxi zuen. Bihamuneko arratsaldean eskabadora batek garbitu zuen bidea, inguruko baserriarren laguntzarekin. Errepi-dean ere putzu handiek autoen joana oztopatu zuten.

Aurtengo jaietako egitaraua agutziz lotuta ez badago ere, aurrerapena eman digute Jai Batzordeek. Musika, ikuskizunak, txapelketak, jan-edana, jolasak... gozagarririk ez da faltako.

Uztailaren 23an hasita

Lehenengo egunean gazteak eta jubilatutak hasiko dira jaietara aurrerantzen, batzuek bazkaria eta jokoak eginez, besteek karta txapelketa jokatu. Txupinazioa betiko leku eta orduan izango da: 20:15ean Udaletxe bakoitik, Galtzagorri txarangaren laguntzaz. Ezoziko Ama Abesbatzak kontzertua eskainiko du eta futbito eta pilota txapelketetako finalak jokatu dira. Dantzaldiak aukeran: Drindotsekin erromeria Plaza Zaharrean eta Itziarren Semeak eta Ze Esatek! txoznetan.

Umeak protagonista zapatuan

Haurrek gozatzeko moduko ekimenak izango dira: danborradan urtengo dira asko eta asko eta ur jolasak izango dituzte freskatzeko. Gauen zezensuzkoak antxixiketaren ipiniko ditu denak. Plaza Zaharrean Rock kontzertua izango da eta txoznetan Gose eta DJ Asiren musika.

Paella jana eta Mariatxiak Santiago Egunean

Lizarrako dultzaineroek izango dute zein lagundu egun honetan: Paella erraldoia egingo da Plaza Barrixan eta herri bazkaria ondoren Kaleberrenen. Bazkalostean karta txapelketa eta umeentzat antzerkia. Mariatxiak kaleetan ibiliko dira, buruhandi eta erraldoiak

ere bai, danborradaren txanda heldu arte. Ondoren Azteca orkestrak joko du Plaza Zaharrean eta Triki Hots eta Junzaitxetxera taldeek Zubi Nagusian

Apar festa eta mojitoa helduentzat

Santa Ana Egunean, azken egunak ez du nobedade berezirik izango. Zezenak izango dira goizean eta arratsaldean eta Bakailao lehiaketa eguardian Plaza Zaharrean. Zezenetan izan nahi ez duenak Kiroldegian apar festa eta kaleetan zehar dantza poteoa izango ditu aukeran. Kubakodoinuekin mojitoa banatuko dute txoznetan aurtun ere. Jaietara bukaera emateko, suzko erroberak eta gazte eta helduentzat apar festa izango dira gauerdi aldera.



Jose Manuel Esnal elgoibartarraren irudia



Jai Batzordeak mahoizko alkandora eta zapia janztera animatu nahi ditu herritarrek



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



Eskerrak emon nahi
dotseguz jai honen
antolakuntzan laguntzia
emon doskuen daneri.



Euripian be, umoriari
eta dantzarako goguari
eutsi zontsen daneri,
eskerrik asko eta urte
askotarako!



Soraluzeko Euskal Jaiak 2010

Zulotik
begira

Marta Otero, idazle gaztea saridun



MOTZIAN

Liburu bat:

Abentura eta misteriodunak

Musika talde bat:

Egoerian araberakua

Oporretarako leku bat:

Zamorako herri ttiki bat

Lagunekin egitteko plan bat:

Lagunekin danak orak!

Menu bat:

Pizza goxo-goxua!

Marta Oterok ondo ezagutzen ditu ipuinak eta badauka ingurumenakiko arduria. Donostiako Ingurumen Balia-bidien Etxiak antolatutako ipuin lehiaketako irabazlia izan da. Iaz be bai. Bera pozik eta etxequak zorutzen daukaz 13 urteko idazle gazte honek.

Zer dauka oinarri aurten aurkeztu dozun ipuinak?

Gaixa birziklapena izan bihar zan eta nere ustez birziklatziak daukazen alde onen eta txarren inguruko ideiak lotu eta ipuina idatzi neban. Izenburua "Una nueva experiencia" da. Iaz euskaraz idatzi neban eta aurten gazteleraz. Sorpresaz jaso dot sarixa eta egixa esan bihar badot, nere ahiztia be aurkeztu zan lehiaketara eta bere sarrerira irakurritta egin neban neria.

Zela animatu zara parte hartzera?

Donostiako Cristina Eneak Euskal Autonomi Erkideguan urtero antolatzen daben ipuin lehiaketia da. Gelakide baten aittak animatu ginttuan parte hartzera. Gaixak naturakin zerikusixa daukanez, gustatu eta parte hartzia erabaki neban.

Sarixa, potolua...

Kanpin denda bat, Elkar liburu dendan gastatzeko 100 euro, diploma bat, naturari buruzko liburu batzuk eta euskarazko hiztegi bat. Laster lehiaketako lau irabazlien ipuinekin liburua argitaratuko dabe.

Nagusittan idazle izango zarala uste dozu?

Uff... zeinek jakin! Egixa esan, iazko ipuina idaztia izan zan idazle moduan izan doten lehenengo esperientzia eta pentsatu barik ideak lotu eta idatzi egin neban. Autengua be bi egunetan idatzittako ipuina izan da eta idazle izateko asko hobetu bihar dot. Seguruenik idazliak ez ditue liburua bi egunetan idazten...

Etxequak zorutzen izango dozuz...

Bai, ama batez be! Bi urte jarraixan irabazlia izatia arrarua zala esaten zeban! Cristina Eneako parkian sarixa jasotakuan, orduan sinistu zeban!

Elektronikaren taupaden atzetik

Musika elektronikoaz, disko jartzaileez eta ekoizleez berba egitean gauaren iluna, dantzalekuko argiak eta parranda giroa datozkigu burura. Musika horien atzean norbait badago, ordea, biniloz edo ordenagailuz erritmoak kontu handiz eusten.

Zela hasi zintan musika elektronikuakin jolasian?

Dj Asi: Neri anaia zaharrangandik datorkit zale-tasuna. Bi plater eta nahaste mahaixa ekarri zit-tuan behin lokaletik eta ez dakit zenbat orratz apurtu ostian, anaiak dana pasatu zostan. Oinarrixa berak erakutsi zostan eta gero orduak egitten nittuan entsaia-tzen, gaupasak be egin dittut benetako saio bat simulatzeko.

Oren Bi: Guk taldietan jotzen jardun do-gunez gehixago gustatzen jakun ekoiztia, kreatibitatea lantzia. Programak kontrola-tzen ikasi eta praktikia hartu eta gero dator zailena: daguan danan artian ideia onak eukitzia. Materixala danon eskura dago baina gero buruan dakazuna islatu bihar dozu.

Dj Gordy: Nik ekipua erosi eta etxian hasi nintzan praktikatzan. Hilabete batzuetan jolasten ibili nin-tzan, nahastutako errekopilatorixuekin eta abar. Ma-lapen pintxatzen hasi nintzan, 2000n Lemoako NON dantzalekuan sartu nintzan eta ordutik astebururo pintxatzen dot bertan.

Ze materixal erabiltzen dozue?

Oren Bi: Gaur egun binilua askoz gitxiago erabiltzen da hori imitatzen daben programa mordua dagua-lako. Guk Ableton Live programia erabiltzen dogu.

Jende askok bi binilo birgin erabiltzen dit-tu eta gero soinuak horren gainian emulatu. Xarma pixkat galtzen dau baina bueno...

Dj Asi: Nik osteria ez dot bat be erabil-tzen. Kontrolatzaile batekin egitten dot dana, botoien bittartez eta ordenagai-luan laguntzarekin.

Dj Gordy: Nik bi edo hiru binilo eta kon-trolatzailea erabiltzen dittut.

Oren Bi:
“Egun ekoizle-
izatia eskuraga-
rrixagua da”

Internetek ze abantaila ekarri dotsuez?

Oren Bi: Lehen azpiegitura bat bihar zenduan mu-sikia ekoizteko eta oin, ekoizliak gitxiagokin mol-datu leikez, ordenagailu bat eukitta aurrera egin leike, horregaittik ekoizle pilo bat dago munduan. Eskuragarrixagua da, baina ekoizliak ez dau xen-timo bat be ikusten. Internetek piraterixia mordua ekarri dau.

Oren Bi aurreko asteburuan Durangoko Plateruenan eskeinitako “live”an.



Dj Asi: Bai, lehen Dj izatiak dirua suposatzen zeban. Kantu batek 2.000 pezeta balio zittuan, pentsatu saio oso bat egiteko gastatu bihar zenduan dirua! Nik adibidez, pintxatzen doten dana pirateautakua da, zela ez doten profesionalki honetan lan egitten! Hil bukaeran erremunerazino bat jasoko baneu ba ekipua edo musikia bera erosteko erabiliko neuke, baina hori ez da kasua.

Dj Gordy: Egixa da interneten dana daguala. Adibidez, "Beat port" mundu mailako webgunia da, denda digitala, genero, zigilu eta artistaka ordenatuta dago eta bertan kantuak erosi zein bez gero zuk erabiltzeko. Milioika sarrera izaten ditu eta gehixenek, pirateauta amaitzen dabe.

Dj Asi Elgoibarko Malapen



Dj eta ekoizliak azken tendentzietan eguneratuta egon bihar izaten dozue?

Oren Bi: Eguneratuta egon bihar dozu bai. Elektroklikan mundua abixada bizixan doa eta eboluzinua jasaten dau etenik bare. Gainera, beti dago tendentziaren bat edo berritasunen bat. Hainbeste ekoizle dago!

Dj Asi: Hola da, bai, baina ezin zara beti egunian egon. Egunguztia horretarako badaukazu bai, baina bestela ezinezkoa da danera heltzia. Neretako larregi dago.

Dj Asi:
"Lehen Dj izatia garestixa zan"

Dj Gordy:



Alex Losada 1998an hasi zen mundu honetan. Bi eta hiru platerrekin pintxatzen du. Mila binilotik gora ditu eta "progressive bumping" ipintzen du. 2005ean eta 2006an DJI aldizkariak ematen duen "DJ Progressive onena"-ren saria jaso zuen. www.djgordy.com

Oren Bi:



Antton Alberdi eta Jon Martinez 2007an hasi ziren. Ekoizleak dira eta techno eta house musika egiten dute. Bi ordenagailu eta bakoitzak bere kontrolatzailea darabilte. Hiru EP (iraupen luzeko diskoak) argitaratu dituzte. www.myspace.com/orenbi

Dj Asi:



Asier Fernandez 1998an hasi zen. Deep house eta funky house musika ipintzen du Elgoibarko Malapen eta Zarauzko Da-dan. Ordenagailua eta kontrolatzailea erabiltzen ditu. 2007an Mixmaster saria jaso zuen Txitxarron. www.myspace.com/djasi



Dj Gordy NON dantzalekuan pintxatzen.

Dj Gordy: Bai, gainera piraterixian asuntuakin gauza on gutxi eta txar larregi dago.

Zelako mailia dago Euskal Herrixan?

Oren Bi: Hemengo mailia ez da txarra baina jende gutxi dago. Kanpoko hiriburuetan bai, Bartzelonan, Madrilan, Andaluzian be bai. Lehen Valentzian be bazeguan...

Dj Gordy: Diskotekak ondio jarraitzen dabe Valentzian, beste izen batzuekin eta musika batekin, baina hor dare. Oin House musikia da gehixago entzuten dana. Gero Ibiza dago, negozio bat da. Bere sasoiaren izan neban hara juateko aukeria, ez jatan errentagarri urtetzen eta ezetza emon neban.

Dj Gordy:
"6 eta 8 orduko saiuak egin bihar izan dittut"

Zenbat denborako saiuak edo "live"-ak egiten dittuzue?

Oren Bi: Guk ordu terdi edo bi orduko live-ak egiten dittugu eta nahiko intentsuak izaten dira. Ezin izaten gara larregi lasaitu ze kristonak egin zeinkez efektuekin eta konfundidu ezker...

Dj Asi: Nik egunan arabera. Aurrekuan Bergaran ordu erdi eskas egin neban; barregarrixa benetan ze ez dotsu ezertarako astirik emoten. Lau kantu eta ospa. Beste batzuetan berritri, sei ordu emon izan dittut pintxatzen. Oin gutxi Eibarko Ryder tabernan goizeko 02:00etatik 08:00etara egon nintzan pintxatzen.

Dj Gordy: Nik normalian 2 ordutakuak egiten dittut. Baina tokatu izan jata 6 edo 8 ordu geratu bare pintxatu bihar izatia. Goizeko saiuak be egindakua naiz Amorebietako Apetece diskotekan, 9:00etatik 15:00etara eta ordu horretan danetik goten da!




ZARAUZTEN EGUN PASA



MAIATZA BUKAERAN, AUTOBUSA HARTU ETA ZARAUZKO "ASTI" PARKERA JOAN GINEN. HELDU ETA XIBURUETAN GUSTORA BAINO GUSTORAGOA PASATU GENUEN. BAPATEAN EURIA! KORRIKA BATEAN SARTU GINEN BERTANDAGOEN KARPARA ETA HAN ABESTEN, DANTZATZEN ETA JOLASTEN ARITU GINEN

EGUZKIA IRTEN ARTE. BAPO BAZKALDU ETA HONDARTZARA ABIATU GINEN IZOZKI BILA. EGUZKI AMANDRIA ERE AGERTU ZITZAIGUN ARGAZKIA ATERA AHAL IZATEKO. PRIMERAN IBILI GINEN!

HAUR HEZKUNTZAKO 5 URTEKOAK



Ze egitteko asmua daukazue udako oporretan?

Zela bizi dozue udia?



Josune Astigarraga, 8 urte

Eguraldi ona egitten dabenian hondartzara juaten gara eta eguraldi txarrakin lagunekin jolasten dot herrixan. Normalian kalia jolasten dogu baina bizikletan be ibiltzen gara. Iaz Tenerifen egon nintzan gurasuekin eta aurten beste leku batera juango gara.



Markel Ariznabarreta, 8 urte

Oporrak hartzen dittutenian lagunekin asko jolastuko dot herrixan bertan. Egun baten patinatzerara juango gara, beste baten bizikletan ibiltzera, beste baten futbolian... Nere gurasuekin uste dot Tenerife inguruko irla batera noiala baina ez dakit izena.

Neri udan hondartzara juateko plana gustatzen jata. Bestela be lagunekin asko jolasten dot, harrapaketetara... Gurasuekin Benidormera juaten naiz oporretan eta han hondartzan egoten naiz egun osua.



Miren Muguruza, 9 urte

Udan gehixen egitten dotena lagunekin jolastia da. Futbolian jolastu, bizikletan ibili eta kalia egotia asko gustatzen jata. Iaz Kanaria Handian egon nintzan gurasuekin eta aurten uste dot Debara goiazela.



Iker Urkiri, 9 urte

LEHIAKETA

JAIETAKO KARTEL LEHIAKETAKO IRABAZLEAK

Artista gazte hauen marrazkiak aukeratu ditu Udalak aurtengo Santiago-Santa Ana jaietako kartel lehiaketako irabazleak izateko. Bakoitza bere mailan, guztiek 50na euroko saria irabazi dute. Irabazitakoarekin zer egingo duten galdetuta, dirua aurrezteko erabiliko dutela erantzun dute denek. Artista gazte finak, beraz, ondorengo boskotekoak.

Irabazleak

- LH2 Sergio Montes
- LH3 Maddi Garmendia
- LH4 Ane Moreno
- LH5 Miren Dominguez
- LH6 Ekaitz Garate




ZER TRIZTEN DOTSAZU?

Kulturaren Mahaiak Zinari behin-betiko izena ipintzeko lehiaketa antolatu du.

Ze izen ipiniko zontsake Zinariari?

JAVI FERNANDEZ

Ikaslia



Herriko antzokixa denez Plaentxiakin erlazinua eukiko daben izen bat ipiniko zontsake nik. Dana dala, ez dakit ze esan, hobeto pentsatu bihako neuke izen egoki bat topatzeko.

CRISTINA LOPE

Etxekoandria



Herri guztietako ziniak dauke izena eta guriak be bihar dau bat. Oin, beti deittuizandotsaguzinia, bat eta bakarra euki dogulako eta ez da biharrik egon. Izen elegante bat ipiniko zontsake nik.

MAITE GOENAGA


Ikaslia



Entzun dot lehiaketia ipini dabela martxan eta egon naiz pentsatzen izenen bat. Beti deittu izan jakozinia, betidanik hola izan da. Nere us-tez ziniakin eta Plaentxiakin lotutako izena bihar dau.

XABIER ALBERDI

Fresadoria



Izena bihar dau bai, baina hola boteprontuan ezin leike etara bat. Herri batzuetan "Herri Antzokia" deitzen dotse eta listo. Herri honetan ez da egon zinari beran izena ipintzeko pertsona famaturik be eta ez dakit ze esan.

GAZTELUPE
taberna
tel: 943 75 20 81

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM
Desing
Diseinua eta Sormena
Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

MAPFRE
SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabalatz, 5-8 Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jibarza@infonegocio.com

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

Zineari izena ipintzeko lehiaketa

Soraluzeko Kulturaren Mahaia iaz zaharberitutako zineari izena ipintzeko lehiaketa antolatatu du. Lehiaketara aurkeztzen denak nahi beste izen proposatu ditzake. Izenarekin batera izen hori aukeratzeko erabilitako arrazoiak azaldu behar ditu. Proposamenak lehenbailehen bidali behar dira udala@soraluze.net helbidera edota udaleko kultura zerbitzuan entregatu. Saria landetxe edo nekazal turismo batean 2 lagunentzako asteburu pasa.

Bejarreko abesbatza kantuan

Abesbatzak gonbidatuta, Bejarreko abesbatza etorriko da bihar herrira. Salamancatik datoz eta asteburu pasa egingo dute herrian, tartean kantu saioak eskainiz. Zapatu goizean emandua egingo dute kiroldegiko erakusketa aretoan eta arratsaldeko 20:00etan Zinean. Ezoziko Ama abesbatza urrian joango da Salamancara, kantu saioa eskaini eta giroaz gozatzeko.

Kultur Agenda

Ander filma: Ekainak 25 bariakua, gaueko 22:15ean zinean, Udaleko Emakume Batzordeak antolatuta. (Lesbianen, Gayen, Bisexualen, Transexualen eta Queeren Askapen Sexualaren aldeko Nazioarteko eguna dela eta).



Allegro Elkartearen 50. urteurrena:

Ekainak 26, zapatua

- Ezoziko Ama abesbatzaren kontzertua eta txistor-jan herrikoia. **Eguerdiko 12etan, Plaza Barrizan.**
- "Allegro Elkartea 1960-2010" argazki erakusketaren inaugurazioa. **Eguerdiko 12etan, Kiroldegiko Erakusketa Aretoan.**

Ant.: Allegro Elkartea.

Triki ta Kek girotuko du San Andresetako zapatua

San Andres Elkartek antolatuta eta Soraluzeko Udalaren laguntzarekin, uztailaren 10ean hasi eta 12ra arte luzatuko dira San Andres auzoko jaiak. Azken urteotako egitarauari eutsiko zaio aurten ere, Gazte Egunarekin hasi eta Auzokoen Egunarekin amaituko dena.

Kirola, musika eta jatordua nagusi

Emakumeen pala txapelketako finalak zabalduko ditu jaiak, Unai eta Enaitz trikitilariak girotuta. Ondoren herri afaria izango da (tiketak egunean bertan salgai San Andresen).

Triki Ta Ke taldearekin erromeriak jarraituko du goizaldera arte eta bukaera emateko txerri harapatzen jardungo dute animatzen direnek. Domekan meza, pilota partidak, trikitilariak eta bertsolariak izango dira. Arratsaldez,

Meza III. San Andresko Harria Txapelketa jokatu da eta Bergarako zezentxo eta poniak etorriko dira gazteenen gozagai.

Auzokoen Egunean zehar, urteroko moduan, meza, umeendako jolasak, Emakumeen Bola Saria eta auzotarren bazkaria egingo dira Lizaso eta Egaña bertsolariarekin eta Laja eta Lutxurdixo trikitilariarekin.

83ko San Andres jaietako bideoa

Aurten nobedadea: 1983an grabatutako San Andresetako bideoa ikusteko aukera izango da (eguna eta ordua, zehazteke). Duela 27 urte ospatutako jaietako hiru egunetako irudiak azaltzen dira: sasoi hartako San Andres (bolatoki zaharra eta munoarekin), orduko erromeria eta jai giroa, Lazkao Txiki bertsoan eta txiste kontatzen, Tapia gaztea soinujole...



Txilarre torero lanetan, ume jolasak eta auzoko gizonak irudietan.

Sorgin festa sugarretan

Kaleko argiak itzalita, suaren argitan egin zen San Juan bezperako jai jendetsua. Dantzak, musikak eta edabe magikoek sorginduta, oroitzapen txarrak erre eta suaren gainetik salto egin zuten gerturatutakoek.



Roberto Blanco bigarren Motokros Euskadiko Txapelketan

Ekainaren 6an II. Open Motokros Txapelketako lehen froga jokatu zen Bergaran. MX2 kategorian, guztira 32 parte hartzaile izan ziren eta Roberto Blanco bigarren postua eskuratu zuen. Abuztuaren 29an hurrengo lehia izango du, Bergaran bertan.



Iturria: Nerea Rodriguez

Emakumeen Pala Txapelketa bigarren fasean da

Maiatzan hasieran hasi zen Torturaren Kontrako Emakumeen V. Pala Txapelketa. Guztira 18 bikote (36 emakume) aritu dira lehian eta lehen fasea bukatuta, zortzi bikote sailkatu dira bigarrenarako. Bikote bakoitzak partida bat jokatuz, ekainaren 14tik 20ra bitartean erabakiko da finalerdietara pasatuko diren lau bikoteak zeintzuk izango diren. Finala uztailearen 10ean izango da arratsaldeko 18:00etan San Andres auzoko

pilotalekuan, jaien egitarauarekin bat eginda.

Bigarren fasera sailkatutako bikoteak:

Irati I. - Amaia A.
Iosune E. - Ainara L.
Oinatze S. - Onintza N.
Lorea de C. - Alana B.
Nere A. - Rosa E.
Hiart A. - Ezozi A.
Karle E. - Edurne F.
Nagore H. - Sandra

EMAITZAK

PELOTA

Titin III – Pacual 22
Gonzalez – Laskurain 17

Gonzalez – Laskurain 22
Aritz Lasa – Barriola 17

FUTBOLA

Kiroldegiko Futbito Txapelketa

Arane – Guri-guri 2-6
Hala dok ala? – Eusk. Label 2-9
Artifices – Kastakuak 6-2
Frontoi Team – Real Koholikos 6-1
Gare izenbarik – Gaztetxe 7-1
Korta Team – Joga Bonita 4-17
Korta Team – Eusko Label 0-16
Frontoi Team – Gaztetxe 20-0
Artifices – Real Koholikos 2-4
Arane – Joga Bonita 2-5

AGENDA

PELOTA

Domeka 27, 17:00etan Arrasaten
Mtz de Irujo – Merino
Titin III – Laskurain

Martitzena 29, 17:00etan Mungian
Mtz de Irujo – Laskurain
Xala – Zubieta

FUTBOLA

Kiroldegiko Futbito Txapelketa Barixakua 25

Hola Dok Ala? - Arane 19:00etan
Joga Bonito - Eusko Label 20:00etan

Zapatua 26

Real Koholicos - Gaztetxe 09:30ean
Fronton Team - Kastakuak 10:30ean
Gare Izenbarik - Artifices 11:30ean
Korta Team - Guri Guri 12:30ean

Sorako Futbol Taldearen Batzar Orokorra

Ekainak 30, eguaztena, 19:00ean udaletxeko saio aretoan.

Gai ordena:

- Kirol balantzea eta balantze ekonomikoa
- Zuzendaritza berriaren aukeraketa
- Galderak eta eskariak

Barçako jarraitzaileen afaria

Ekainaren 5ean F.C. Barcelona taldearen 19 jarraitzailek afaria egin zuten Txurruka jatetxean. Barça taldea 2010. urteko BBVA ligako irabazlea izan dela ospatu zuten.



Iturria: Mario Loscos



ZORION AGURRAK



Maren Cordoba Aristi

Ekainaren 27ean 3 urte!
Zorionak eta muxu haundi bat
aittitta eta amaman partez!



Zorionak Zalao!

Ekainaren 24an 2 urte!
Patxo haundi bat etxeke
sorgintxuari. Aitatxo,
amatxo eta familixian partez!



Irene Perez Arribas

Ekainaren 11n 13 urte!
Zorionak eta muxu
haundi-haundi bat Lore,
Josu eta etxekeon partez!



Fernan Garcia eta Ainhoa Rodriguez

Maiatzaren 29an eta 31an urteak
bete dituzelako! Patxo haundi bat
haurtzaindegiko lagunen partez!
Onenak zarete!



Zorionak Mireia!

Ekainaren 21ean 19 urte
bete dituzulako.
Muxu haundi bat etxekeon
partez. Aupa Real!

jaiotakoak

MADDI OREGI MAYO
IZARO DE LA TORRE RODRIGUEZ



hildakoak

MARIA JESUSA TELLERIA LAZKANO
PASTORA IRAOLA LARRAÑAGA



LEHIAKETA

- ▶ Zein ageri
da argazki
honetan?



- ▶ **Saria:**
Euskarbel mahai jokoa

Oharra: Lehiaketako zozketa ostiral eguerdian burutuko da.

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- ▶ **Irabazlea:** Maialen Larrañaga
- ▶ **Leire Mendizabal,**
Mendizabal okindegikua da
pasa dan alian agertzen zan
soraluzetarra.



deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu aldizkaria@pilpilean.com

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Emilita Altuna

1973-74 IKASTURTIA

Argazki eder hau 1973-74 ikasturteko gelakidieri etaratako talde argazkixa da, oin dala 38 urte hartutakua. Herriko 23 neska-mutiko gazte honek sasoi hartakuak ziran soineko, gona, fraka eta alkan-dora koloretsuak soinian daroiezela ikusitta, argazkixari uda partian etaratakua dala antz emoten jako; seguruenik ikasturte bukaeran, udako oporrak hartu aurretik.

Argazkixan goixan:

Josu Etxabe, Jose Ignacio Moro, Maria Luisa Alberdi, Jose Ramon Agirrezabal, Jose Zubiaurre, Gonzalo Gallastegui, Javier Abaitua, Joseba Gorostidi, Aitor Elkoroiribe, Ane Orbea Basauri, Marina Guridi, Juan Martin Altuna eta Jaione Suinaga.

Behian:

Pedro Javier, Javier Arana, Estibaliz Begil, Alazne Etxabe, Nerea Varela, Elene Alberdi, Susana Alberdi, Monserrat Cerrajon, Idoia Ariznabarreta, Isaac Galarraga.

San Andresko Jaixak 2010

UZTAILAK 10, ZAPATUA

- 20.30ean** HERRI AFARIA (txartelak bertan)
23.30ean Erromeria TRIKI TA KE taldearekin
02.30ean Txerri-harrapatzea eta txokolate jana

UZTAILAK 11, DOMEKA

- 13.00etan** Pelota partiduak ATXOTEGI / JAUREGI – LOIOLA / MUGURUZA
13.00etan MENDOTZ eta BIXKAI trikitilariak eta
 U. ALBERDI eta A. BARANDIARAN bertsolariak
14.30ean Bazkaria bertsolariekin
18.00etan III. SAN ANDRESKO HARRIA TXAPELKETA
19.00etan Bergarako zezentxoak eta poniak
19.00etan Bola Txapelketa

ETORRI ETA GOZATU UMORE ONIAN JAI EUSKALDUN ETA NATURALEZ!

Arzaletzaileak:



San Andres Elkartea

Laguntzaileak:



Soraluzeko Udala

Diagnostiko Biologikoa
 Naturopatia
 Homeopatia
 Fitoterapia Ortomolekularra
 Kromoterapia
 Bach-en loreak...

Ihur Olabarria Corchero

ioko
 Medikuntza Alternatibo Zentrua
 Centro de Medicina Alternativa

Jandorianiz, 3 Behea
 20720 Azkoitia.

Boulevard, 9 Principal A
 20003 Donostia
 Tf: 615 779 920
 www.medicinaalternativa-ioko.net

SEGURTASUNA

GILTZAK, S.L.
 SARRAILAGINTZA

• Era guztietako sarraila eta segurtasun kutxen **salmenta** eta **mantenua**
 • Segurtasun eta iheserako **instalakuntzak**
 • Sarrailen **egokipenak**
 • Era guztietako giltzen **kopiak**
 • Trabatutako ateak **askatzen** ditugu

8.00etatik 24.00ak
larrialdiko zerbitzuak
943 70 13 91

Arragueta 3
 20600 EIBAR
 GIPUZKOA
 T. 943 70 13 91
 F. 943 20 86 99
 giltzak@giltzak.com
 www.giltzak.com

MARI MAR HARATEGIA

Gurean Euskal Herriko produktuak!

Tel. 934 75 24 02
 Santa Ana kalca, 4 Soraluze

Aaras

DIN arauak jarraituz
 eta zehaztasun handiz egindako torniluak

T. 943 75 17 36 / 18 03
 F. 943 75 22 95

Industrialdea 20 - 21
 50 Posta Kutxatila
 20590 Soraluze

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
 Jabe Elkarateak
 Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
 Tifonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
 GIPUZKOA

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak
 Estukoak
 Fatxadak
 Eskilarak eta patioak
 Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030
 Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Dena
astroago
doan garaian



Gipuzkoa, bizkor

Donostiako Bigarren Ingurabidea

Gipuzkoako errepideak goitik behera aldatuko dituen Donostiako saihezbide "berria".

Azken belaunaldiko 17 kilometroko autobide honi esker, 40.000 ibilgailuk baino gehiagok ez dute Donostiako saihezbidea igaro beharrik izango, batez ere ibilgailu astunak eta Gipuzkoa zeharkatzen dutenak.

300 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eta trafikoa kudeatzeko teknologia modernoak zure erosotasuna eta segurtasuna handitzeko.



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >>